EBAZPENA, 2023ko apirilaren 21ekoa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektua jendaurrean jartzen duena.

RESOLUCIÓN de 21 de abril de 2023, de la Viceconsejera de Relaciones Institucionales, por la que se somete a información pública el proyecto de Decreto por el que se crea y regula el Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas denunciantes en el marco del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2023ko apirilaren 12ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan informaziorako eta salatzaileen babeserako barne-sistema arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Mediante Orden de 12 de abril de 2023 se inició el procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto regulador del Sistema interno de información y de protección de las personas denunciantes en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea betez, 2023ko apirilaren 20an, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak izapidetu beharreko dekretu-proiektua aldez aurretik onartzeko agindua eman zuen.

En cumplimiento así mismo de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, con fecha 20 de abril de 2023, la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno dictó Orden de aprobación previa del proyecto de decreto objeto de tramitación.

Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan aplikatzea, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2023 Legearen II. tituluan jasotako baldintzetan, 2/2023 Legean jasotako aurreikuspenak, eta arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzea.

Se trata de aplicar en el seno del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos contemplados en el Título II de la Ley 3/2023, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, las previsiones contenidas en la Ley 2/2023 y constituir un Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas denunciantes.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluak eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluak –herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoak– xedatutakoa betez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar da, dekretu-proiektuari dagokionez herritarren eta egokitzat jotzen diren erakundeen iritzia eta ekarpenak jasotzeko.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y en el artículo 133.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sobre la participación de los ciudadanos y ciudadanas en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos, ha de darse trámite de audiencia e información pública a fin de recabar la opinión y aportaciones de la ciudadanía

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

y entidades que se consideren oportunas sobre el proyecto de decreto.

Horretarako, jendaurrean jartzen da proiektua, hogei egun balioduneko epean, iragarki hau iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

A tal efecto, se somete el proyecto a información pública, por un plazo de veinte días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio en el Tablón Electrónico de Anuncios.

Hori dela eta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 9.1.i) artikuluarekin bat etorriz, honako hau

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 9.1.i) del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa: Jendaurrean jartzea, hogei egun balioduneko epean, ebazpen hau iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta salatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektua.

Primero: Someter a trámite de información pública, por un plazo de veinte días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de esta Resolución en el Tablón Electrónico de Anuncios, el proyecto de Decreto por el que se crea y regula el Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas denunciantes en el marco del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetzeko, dekretu-proiektua eskuragarri egongo da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrei Arreta Emateko eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan.

(Iragarki-taula elektronikoa. Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus )

A efectos de cumplimentar lo previsto en el párrafo anterior, el proyecto de Decreto se encontrará disponible en la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, sita en Vitoria-Gasteiz, c/ Donostia-San Sebastián nº1 y en el Tablón Electrónico de Anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. (https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/tablon-electronico-de-anuncios).

Bigarrena: Alegazioak, epe berean, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzara bidali beharko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015

Segundo: Las alegaciones deberán dirigirse en igual plazo a la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco, sita en Vitoria-Gasteiz, C/ Donostia-San Sebastián nº1, 01010 Vitoria-Gasteiz; a través de cualquiera de las formas

Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan.

previstas en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoan ageri den egunean.
Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Jone Berriozabal Bóveda
Erakunde harremanetarako sailburuordea
Viceconsejera de Relaciones Institucionales

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno